

PROIEKTUA

HERRI-OLA



KOKAPENA

Otxandio eta Oihandi bailara, Bizkaia, EH.

“
GOBERNANTZA EREDU
BERRI BAT, HERRITARRAK
SUBJETU AKTIBO ETA
KOMUNITATEA SUBJETU
ERATZAILE DENA.
”

@Herriola

www.herri-ola.eus

HELBURUA

Hazkundera oinarritutako garapen eredu batetik, bizitza kalitatea helburu duen, eta elkartasuna, iraunkortasuna, euskalduntasuna eta herritarren parte-hartzea oinarri izango dituen garapen eredu justuago bateranzko trantsizioa gauzatuz Otxandioren etorkizuna eraikitzea.

BEHAR SOZIALA

Parte-hartzeaz eta politikagintza ereduaz asko hitz egiten den garaian bizi gara, demokrazia formala eta bere instituzioen zilegitasuna ezbaian jartzen ari den garaian. Hori horrela, Otxandio urteak daramatza parte-hartze politikak garatzen, esperimentatzen, ikasten; eta urte luzeetako gogoetaren ondoren gobernantza eredu berri bat definitzera heldu da. Jarraian aurkezten den hau Otxandioko herriaren berezitasunetara eta Herri-ola egitasmoaren beharretara egokitzen den gobernantza eredu berri bat da. Hiru dira eredu honen oinarriak:

- Herritarrak ez dira eskubidedun objektu pasiboak, eskubide eta betebeharren jabe diren subjektu aktiboak baizik.
- Alderdi politikoen gaitetik komunitatea da subjektu eratzailea.
- Demokrazia zuzena du helburu.



EGUNGO EGOERA

Prozesuen batzorde batzuk eratuta daude. Herrigintza prozesuetan proiektu konkretuak garatzen dira. Proiektu hauen garapenerako guneak dira prozesuen batzordeak. Edozein herritarrek parte har dezakeen gune irekiak dira batzordeak. Oraindik orain batzorde asko eta asko lanean hasi gabe badaude ere, Hezkuntzari, Hondakinei, Kirolari, Euskarari, Parekidetasunari zein Immigrazioari dagozkien prozesuen batzordeak abian dira. Eta hainbat eta hainbat dira azken urteotan prozesu hauek garatu dituzten proiektuak.

Herri-ola batzordea lanean. Herri-olaren ikuspegi osoa duen batzordea da eta Herri-olaren kudeaketa estrategikoa egitea dagokio. Adostasunez hautatzen dute.

.Prozesu bakoitzeko zaindari batek, Herri-olako koordinatzaileak, alkateak, ordezkariak duten alderdi bakoitzeko banak eta garapen teknikariak osatzen dute batzordea. Deialdiak zabalak dira eta edozein herritarrek du bertaratzeko aukera. Hileko lehenengo astelehenetan batzen da. Koordinatzaileak dinamizatzen du Herri-ola batzordea. Koordinatzailea batzordekideek

Foroak antolatzen dira. Herrigintza proiektu baten gainean eztabaidatu eta hausnartzeko batzar irekiak antolatu izan dira. Herri-ola batzordea da foroaren deitzailea. Deialdia herritar guztiengana heltzeko komunikazio bideak lantzen dira.

Herritarren Kontseiluak ere antolatu izan dira. Batzar ireki deliberatiboa da. Kontseiluak herritar guztiei dei egingo die herrigintza proiekturen baten proposatzen den urrats kualitatibo bat deliberatzeko. Herri-ola batzordea izango da Herritarren kontseiluaren deitzailea. Deialdia herritar guztiengana heltzeko komunikazio bideak lantzen dira. Emaitzak Udal Osoko Bilkuran hartu beharreko erabakia baldintzatzen du.

OBJETIVO

Construir el futuro de Otxandio partiendo de un modelo de desarrollo basado en el crecimiento y transformándolo en un modelo más justo que tenga como objetivo la calidad de vida y que esté basado en la solidaridad, la sostenibilidad, el euskera y la participación ciudadana.

“
UN NUEVO MODELO DE
GOBERNANZA DONDE EL
CIUDADANO ES SUBJETO ACTIVO
Y LA COMUNIDAD SUJETO
TRANSFORMADOR
”

DESCRIPCIÓN

Otxandio lleva años desarrollando políticas de participación, experimentando y aprendiendo; estos años de reflexión nos han llevado a definir un nuevo modelo de gobernanza basado en:

- Las personas que viven en Otxandio no son objetos pasivos con derechos, si no sujetos activos con derechos y obligaciones.
- La comunidad es en sujeto transformador, por encima de partidos políticos.
- Tiene como objetivo la democracia directa

RETOS

- Se han creado **comisiones de procesos** en los que se trabajan proyectos concretos. Algunas comisiones ya están en marcha (Educación, Residuos, Deporte, Euskera...).
- Se ha creado la **comisión Herri-ola** que tiene una visión global del proceso
- Se organizan **foros** para discutir y reflexionar sobre proyectos en concreto.
- **Comisión de ciudadanos:** en una comisión donde participan todos los ciudadanos y donde se adoptan decisiones con un alto valor cualitativo